



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

UDALEKU IREKIAK OIARTZUN 2010 HEZITZAILEEN AUKERAKETARAKO OINARRIAK

Aurreko urteetan bezala, aurtengo uztaileko Udalak udaleku irekiak antolatu ditu Uztailan zehar Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat.

Honen bitartez, **hezitzaile** lana egiteko eskaera egingo duten gazteen aukeraketa egiteko **Udalak eta Ttiruki aisialdi elkarteak** erabiliko dituzten irizpideak jakinarazten dira, honako hauek izango direlarik:

1. **Euskara maila:** EGA agiria dutenei 3 puntu emango zaizkie. Euskaldun zaharrei edota euskaldunberriei (10. urratsetik gora) puntu 1.

Gehienez 3 puntu emango dira atal honetan

2. **Aisialdiko tituluaren jabe izatea**, honako balorazioaren arabera:

Hezitzaile agiria: 6 puntu

Atal teorikoaren agiria: 3 puntu.

Gehienez 6 puntu emango dira atal honetan

3. **Heziketarekin harremana duten ikasketak izatea** (Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, Gizarte Hezkuntza). Honako balorazioaren arabera:

Lizenziatura 3 puntu

Diplomatura (edo unibertsitateko 3 ikasturte osoak gaindituta izatea) 2 puntu

4. **Esperientzia** edukitzea udaleku-kanpaldietan hezitzaile bezala. 0,5 puntu udaleku edo kanpaldi bakoitzarengatik.

Gehienez, 5 puntu emango dira atal honetan

5. Aisialdiarekin zerikusia eta udalekuetan baliagarri izan daitezken **espezializazio-ikastaro edo ikasketa** bakoitzarengatik (sorosle ikastaroa, erizaintza...), 0,5 puntu.

Gehienez, 2 puntu emango dira atal honetan.



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

Hauek dira **hezitzaileak** hautatzeko kontutan izango diren baldintzak. Irizpide hauen arabera, hezitzaile izan nahi duten gazteei izena emateko epea, apirilaren 12tik 30era arte irekiko zaie, eta haurren matrikulazioa ezagutu ondoren, beharrezkoak diren hezitzaileak hilabetez kontratatzeko proposamena egingo du Gazteria eta Kirola Batzordeak, hautatuak era honetan banatuta:

- Haur Hezkuntzako 10 ikasleko hezitzaile bana.
- Lehen Hezkuntzako 12 ikasleko hezitzaile bana.

Hezitzaile kopuru honetatik 4 lanpostu gordeko dira puntuaziorik onena lortzen duten eta aisialdi-monitore izateko ikastaroaren atal teorikoa bakarrik eginik, titulua lortzeko atal praktikoa egitea beharrezko duten 4 hezitzaileentzako (beti, baremo honen ondorengo puntuazioaren arabera).

Aukeratutako hezitzaileetatik batzuk, behar bereziak dituzten hurrekin arituko dira. Aukeraketa hau **Udalak eta Ttiruki aisialdi elkarteak** egingo dute.

Ekainaren 19an larunbata programaketa zehaztuko da hezitzaileekin Arritxulo aterpetxean. Egun horretarako egitaraua:

9:00: Oiartzungo plazan elkartu eta Arritxulora abiatu.
10:00: Aurkezpena eta taldeen banaketa
10:30: Programaketa
13:30: bazkaria
15:00: programaketa bukatu arte
20:00: afaria
21:00: gaubela
22:30: amaiera

(Egun honetako garraioaz eta otorduez, Ttiruki aisialdi elkartearen arduratuko da).

Udalekutan hezitzaile lana egin ahal izateko ezinbestekoa da Ekainaren 19an programaketaren garapenean parte hartzea.

Hautagai bakoitzaren puntuazioa ezarri eta gero, berdinketarik gertatuko balitz, heziketarekin harremana duten ikasketak eta esperientziaren atalak hartuko dira hurrenkera horretan, banan bana, irizpide gisa berdinduta gelditzen diren hautagaien hurrenkera erabakitzeko.

Oiartzun, 2010ko apirilaren 12an

Gazteria eta Kirola Zerbitzua